

Ulibarri jenerala Larrinon hil zenekoa

GURE ALTXORRAK ARETXABALETA

Testua: Aitor Antxia
Argazkiak: Aitor Antxia eta Goiena

Duela denbora gutxi, eta ortofotografiari esker, Arrasateko Kurtzetxiki gainean XIX. mendean eraikitako gotorlekua aurkitu dute. 2008. urtean 30 hektarea pinu ebaki zituzten Kurtzetxiki gainean eta horri eta informatikari esker aurkitu ditu Jesus Angel Arrate karlistaldietan adituak eraikuntzaren aztarnak: poligono irudiak dituen gotorlekua da, seguru asko, XIX. mendekoa eta bestelako ezaugarrien artean, 3.000 metro karratuko azalera dauka eta 200 metroko perimetrea.

Aztertzen ari diren hipotesien arabera, aztarnak izan daitezke Konbentzioko Gerrako garaikoak (1793-1795), Napoleonen aurkako gerren aztarnak edota karlistaldien garaikoak. Hori guztia aztertu eta ondorioak ateratzeko, landa lana egin du Alfredo Moraza arkeologoak. Hala eta guztiz ere, oraindik ere indusketa arkeologikoak eta azterketa dokumentala egin beharra dagoela uste du.



Tiroketa baten larri zauritua
Aztarnak karlistaldien garaikoak izan daitezkeela eta, garai hartan Larrino auzoan gertatutako pasadizo bitxi bat ekarri dugu hona: Ulibarri jeneralak bere ibilbidea Larrinon bukatu zueneko.

Miguel Dorronsororen idatzietako baten jasotakoa da

ZUBILLAGAN TIROKETA GERTATU ZEN ETA LARRI ZAURITU ZUTEN

honako hau –Gipuzkoako diputatu 1853 eta 1869 urteen artean eta diputatu nagusi 1869an–; III. Karlistaldiaren –batzuentzat bigarrena– lekuko izan zen: “16an berriz elkartu ginen, Arrasatetik eta San Prudentziotik igaro ondoren Oñatirantz gindoazen, eta, Zubillagako zubia pasa eta gero, aurrez aurre elkartu ginen batailoi batekin; uste dut Mendigorriakoa zela, Oñatitik zetorren. Gipuzkoarrak abangoardian gindoazen; haiek horrela ikusitakoan, geldialdia egin genuen bai eurek eta bai guk; gerrilla moduan zabaldu ginen eta



tiroka ekin genion. Eurak gutxiago zirenez, atzeraka egin zuten eta ingurua guretzat gelditu zen, 69 gizon hartu genituen preso. Ez zen luzaro luzatu tiro egoera, baina gure Ulibarri jenerala gaizki zauritua gelditu zen eta ondoren hil egin zen”.

Beste informazio bat jarraituz, hau da, 1872. urteko uztailaren 1eko *La Ilustracion Española y Americana* egunkaria, zera jartzen du: “Bala batek besoa zeharkatu zion eta alde batera joaz beste aldetik atera zitzaion”.

Urkulu erreka jarraituz, Larrino auzoraino eraman zuten zauritua

eta bertan Kakotegi-gainekoa izeneko baserrira, gaur egun Larrino Etxebarri izenarekin ezagutzen duguna.

Zauria oso larria zen eta gau hartan besoa mozteko beharra ikusi zuten. Maiatzaren 25ean apositua kendu zioten; bertan Oñatiko Odol Ospitaleko arduraduna zegoen. Auzokoan aldetik jaso dugunaren arabera, besoa kanposantuko kapera azpian lurperatu zuten; eraikina duela gutxi egindako hobekuntza lanetan bota zuten.

Arrasateko eta Oñatiko bina medikuk eta Aretxabaletakoak

Ezker eta eskumako litografiatan, Kakotegi-gainekoa baserrira –gaur egun Larrino Etxebarri– eta Ulibarri jenerala, hurrenez hurren.

Barreneko argazkietan, Kurtzetxikirean eboluzioa ikus daiteke –2007, 2008, 2011 eta 2015– gotorlekua aurkitu zuten arte.

–besoa moztu ziotenak– zauriak itxura ona agertzen zuela ikusi zuten eta Oñatira eramatea erabaki zuten. Baina hilaren 29ko gauean, eta bat-batean, baserrian bertan zendu zen. Biharamunean, hilaren 30ean, gorpua Oñatira eraman zuten eta han lurperatu zuten.

Jeneral bizkaitarra

Francisco Ulibarri Veramendi jenerala Abartzuzan jaio zen. I. Karlistaldia egin zuen Iparraldean eta 1838an Aragoira pasa zen komandante postua beteaz. 1948an koronel izendatu zuten. III. Karlistaldiaren hasieran landa-mariskal postua zeukan. Bizkaiko karlisten komandante jenerala zela, 1872. urteko maiatzaren 1ean, Gernikan batu zituen lurraldeko indar karlistak eta bertan korrejidoarek, diputatuak eta aholkulariak izendatu zituen. ■

